

THINK TANK

Kultura politiko berriaren inguruko deliberazio prozesua: 12. Lan dokumentua

HERRITARREN PARTE HARTZEAREN LANKETA – BADALAB ETA HERRITARREN ASANBLADAK PROIEKTUETAKO IKASKETAK

(2021eko maiatzaren 19a)

Sarrera

2021eko otsailaren 17an, lan metodologia eztabaidatu ondoren, maiatzera bitartean hausnarketa taldekideek ekarritako edukien gainean egitea adostu zen. Saio hauetako hirugarrena maiatzaren 19an egin zen *herritarren eta gizarte zibilaren parte hartzea agenda publikoan* landu duen taldearen eskutik.

Saioa taldekideek bi proiektu esperimentaletan egindako lanketan egon da oinarritua. Proiektu hauetako bat Badalab, berrikuntza linguistikorako laborategian garatu da, eta bere gobernantzaren eraketa izan du ardatz. Bigarrena Arantzazu Lab, gizarte berrikuntzarako laborategian landu da, herritarren parte hartzea izan duelarik ardatzean.

Parte hartzaileen hitzetan, think tankeko deliberazioaren osagarri, “esperimentazioaren bitartez ekintzara pasatzea izan da helburua eta esperimentazio horrekin jakintza sortu da”. Azpimarratu dute baita ere prozesu hauek ez direla think tankaren ondorioz sortu, jadanik garatzen ari ziren prozesuak direla, baina think tankak “aberastu” egin dituela, eta indartu. Ondorioz, think tankak “balioa erantsi” diela aipatu dute. Parte hartzaileen aurkezpen honek think tankaren lehen urteko jardueran bilatu den praxia (hausnarketa eta ekintzaren arteko lotura) erakusten du, helburua think tankean hausnartutakoak parte hartzaile bakoitzaren eguneroko lanean eragitea bait zen.

Badalab: gobernantzaren eraikuntzan esperimentazioa

Badalab-en kasuan esperimentazioaren ardatza ahalik eta gobernantza eredu horizontalenaren eraikuntza izan da, hierarkia ahalik eta gehien mugatuko lukeen gobernantza alegia.

Gai honi dagokionez, ikasketa nagusiak:

- a) Garrantzitsuagoa izan da metodologiaren inguruko ikasketa edukiei zegokiena baino, ondorioz, garrantzitsua da moduetan eragitea
- b) Deliberazioa ezin da teorian gelditu, teoria eta ekintza elkarrekin joan behar dute motibazioa landu nahi bada
- c) Aztertutako gobernantzak erabaki juridikoetara eramatea garrantzitsua da

Proiektu hauez gain, Badalab-en esperientziak galdera bat ere jarri du mahai gainean: nola transferitu daiteke praktikan ikasitako hau beste proiektu batzuetara? Horri erantzuteko, “polita izango da think tankaren azken publikazioaren ekarpena”.

Arantzazu lab: herritarren parte hartzearen inguruko esperimentazioa

Arantzazu laben helburua da herritarren parte hartze eta ahalduentzea agenda publikoaren inguruan. Marko horretan lan-modu berezi bat landu da: herritarren asanbladak. Proiektu hauetan modu aleatorioan hautatutako herritarrek parte hartzen dute, edozein herritar erabakiak hartzeko gai dela erakutsiz, beti ere informazio eta baliabide egokiak izanez gero.

Gai honi dagokionez, ikasketa nagusiak:

- a) Administrazio publikoaren inplikazioa ezinbestekoa da prozesu hauetan
- b) Kontsensuaren eraikuntza zaildu egiten duten prozesuak dira
- c) Epe luzeko ikuspegiarekin landu behar dira
- d) Era honetako prozesuak dira erakusten digutenak herritarren ahalduntzea dela lankidetzako gobernantza posible egiten duena
- e) Borondatea soilik ez da nahikoa prozesu hauek bultzatzeko, baliabideak eta egiturak beharrezkoak dira denboran iraun dezaten

Aurreko saiokoekin batera, saio honetako edukiek ekintzatik ikasteak zer esan nahi duen lantzeko aukera ematen dute. Aurreko ikasketek sinpleak dirudite, eta marko kontzeptual baten ikuspegitik partzialak eta kasu batzuetan elkarlotura gabekoak. Hala ere, ikasketa horiek praktikan egin den zerbaitetik eratorriak direnean, ekintza horrek azalatu duen konplexutasuna nolabait kudeatu dela esan nahi du. Ondorioz, ikasketa horien inguruko erreflexibitatearen bidez, konplexutasuna barne hartuko duten ikasketa berriak lantzeko aukera egon daiteke. Hori izango da think tankean kultura politiko berriaren inguruan idatziko den liburuaren helburua.

Bestalde, saioan bertan hausnarketarako tarte ireki da, aurreko esperientzietan oinarrituz partaideen ikuspegiak jasotzeko. Ekarpenak lau ataletan bildu dira:

Taldekideten arteko elkareragina

Herritarren parte hartzearen inguruan lan egin duen taldearen jardunak beste taldeengan nola eragiten duen galdetuta, ondorengo erantzunak jaso dira:

- a) Berrikuntzan jarraitzeko legitimitatea ematen du
- b) Kontzeptualizazioari dagokionez 60ko hamarkadara joan gara, eta, horrek zer pentsatua ematen du
- c) Deliberazio prozesuan talde batzuk jakintza teorikoa sortzen dute eta beste batzuk praktikara zuzenduriko jakintza, eta hor dago gure balio erantsia. Atal desberdinetan eragiten ari gara eta atal hauek osotasun baten parte dira. Honek gure talde egiturekin bat egin dezake eta emankorra izan

Kontzeptualizaziotik eta ekintzatik ikasteko taldearen gaitasuna

Taldekideten artean badira ekintzatik ikastearen garrantzia eta zailtasunak azpimarratu dituztenak

- a) Arriskutsua izan daiteke diskurtsoan soilik gelditzea, haratago joan gabe
- b) Hitz egindakoa praktikara eramatea oso zaila da

Baita teorizazioaren garrantzia azpimarratu dutenak

- a) Teorizazioa gai garrantzitsua da. Kontzeptu batzuk sakonean landu behar ditugu, horrek bideratzen bait du ikuspegi partekatua. Garrantzitsua da denok hizkuntza kontzeptual berdina hitz egitea

Gehiengoak bien arteko loturak azpimarratu ditu

- c) Administrazioak ausardia eduki behar du praktika eta ikuspegi berrietara irekitzeko

- d) Prozesuen eta edukien gainean hausnartu behar da. Hilean behin elkartu eta minutu gutxi batzuetan hausnartzen dugu, ondorioz, distantzia handia dago esaten eta egiten dugunaren artean. Poliki hazten joan behar dugu
- e) Jakintza mota desberdinak uztartu behar dira: aditua, esperientziala eta metodologikoa. Hirurak oso garrantzitsuak dira
- f) Insistentziaren garrantzia. Bada uste bat gure gizartea eta politika ideia berri baten poderioz aldatu daitezkeela. Baina ez da horrela, eraldaketa insistentzia handi baten ondorioz etorriko da. Eraldaketaren kontzientzia eraldatzeko borondatearekin uztartu behar da. Eta batez ere, hau epe luzeko prozesua dela ulertu behar da.

Azkenik, erabili den lan metodologiaren inguruko ekarpenak ere egin dira

- a) Metodologia honek ez ditu emaitzak bermatzen, hala ere, kultura berri bat eraiki dezake eta ikasketarako espazioak eta aukerak sortu
- b) Gaur egun konplexutasunaren inguruan adostasuna dago, baina ez dakigu nola kudeatu konplexutasuna
- c) Lau talde edukitzeak dispersioa sortu du

Gipuzkoako Foru Aldundiaren politiken ekosistema kultura politiko berrian eragiteko

Think tankaren misioa GFaren politiken ekosisteman eragitea da, ekosistema honen inguruko ikuspegiak jaso dira saioan:

- a) Prozesu honetan ekosistema aktore mota desberdinak elkartu dira (soziala, administrazio publikoa eta abar) eta konfiantzazko giroa sortu. Hau garrantzitsua da eta ondoren zerbait eraikitzeke oinarria izan daiteke
- b) Sarri esan izan da konfiantzazko oinarri bat bazegoela, baina ondoren ikusi da maila instrumentalean oinarritutako harremanak zirela. Eraikitzen ari garen harremanek beste logika bat jarraitzen dute eta horrek balio handia du
- c) Uste dut ekosisteman eragiteko baldintzak sortzen ari garela, hau hasiera besterik ez da
- d) Denbora honetan think tankean, iritxi al gara Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikarietara?

Emaitzen inguruko espektatibak eta aurrera begirako ikuspegia

Azkenik, ekosisteman eragiteko ikasketa mota desberdinak landuta, prozesuan zeuden espektatiben inguruko ikuspegiak ere jaso dira:

- a) Think tanka ikasketa prozesu bat izan da eta hori da garrantzitsuena. Denon artean jakintza ko-sortu dugu eta mahai gainean jarri dugu egin nahi duguna. Horrek taldeari zer egiten ari garen ulertzeko gaitasuna hobetzen lagundu dio.
- b) Prozesuetan sakontzen joan behar dugu, baita guztion arteko integrazio maila altuagoa lortzen ere.
- c) Konstantzia izan behar dugu bi urte hauetan emaitzak ikusi nahi baditugu
- d) Ez dakit zehazki zer lortuko dugun, baina kontzientzia sortuko dugula uste dut. Zaila izango da datozen urteetan ikustea, baina gaur egin dugunak etorkizunean eragina izango du